

# Frantziskotarrak Euskal Herrian

*Euskal Hegoalde-Iparraldeetan, bietan, egon dira frantziskotarrak XIII. mendean geroztik. Eta fraideek Hegoaldean komentuak utzi behar izan zituztenean (1840), mojek beren komentuetan segitu zuten, eta fraideak laster itzuli ziren berriz ere, pixkaka (1851, 1859).*

Hemen orain frantziskotarrak esatean, ez naizari "Arantzazuko fraideez" bakarrik, baizik eta San Frantzisko Asiskoa bere gurasotzat aitortu duten Ordena edo Kontregazio guztietakoak hartuko ditut aintzakotzat. Hortaz, orain *Institutu Erlijiosoak* deitu ohi diren gizon eta emakumezkoen Elkarte frantziskotarrak ditut gogoan.

## **Familiarte zabala: Ordena ezberdinak**

Frantziskok, artean gizaseme gaztea zela ikusi zuen nola urte gutxitan milaka lagun bildu zitzaion ingurura, fraide izateko asmoarekin. Anaiarteak sortu eta hamar urteren buruan 3.000 edo 5.000 lagun bildu omen ziren guztien Biltzar Nagusian. Hori, beste gabe, buruhauste bat zen berarentzat, eta arduraz begiratzeko konua elizgizon eta hierarkiarentzat.

Izan ere, lehen fraide-taldetxoaren bizitzeko modua, oso hurbil zegoen garaiko heretiko batzuen bizimodutik: ibiltariak ziren, Ebanjelioa maite zuten, herritar predikari gisara zebiltzan, pobreziaren handienean bizi nahi zuten, etab.

Orduan eta geroko mendeetan ere, mugimendu frantziskotarraren utopiak bere arrisku sozial eta eliztarrak zituen, eta Eliza erromatarrek eskutik eraman nahi zuen mugida hura. Bestalde, mota berri bateko fraidegaiak ere etorzen hasi ziren, familia "onekoak", jakitunak, ira-

kasleak, gobernu-gizonak... Mugimendu frantziskotarraren barruan ikusmolde ezberdinak sortu ziren laster (1221), gatazkak ere bai.

Lehen urte haietako tirabira eta ezinak eliz fraide berrion ibileran behin eta berriz agertu ziren, eta frantziskotarren historia neurri handi batean bere barruko Erreformen historia izango da.

Hortik jaio ziren han-hemen taldetxo bereziak, eta batzutan baita zinezko Ordena handiak ere: Obserbantzia deitua (1415), Kaputxi-noak (1528), Erreformatuak (1596), Errekolektoak (1637), etab. Erakunde horiekin eta xx. mendean beste testuinguru batean sortuko ziren berrieekin (Moja Kongregazioak gehienak) hogeiren bat Institutu frantziskotarrek izan du lekurik Euskal Herrian, garai batean edo bestean, bakoitza bere Etxe eta Komentuekin.

## **Zazpi Probintzietan, banatuta**

Euskal Herriko zazpi Herrialdeetan bizi izan dira Ordena eta Kongregazio ezberdinetako frantziskotarrak, gizonezkoak eta emakumezkoak, fraideak bezala mojak.

Frantziskotar Erakunde horiek "Kustodia" eta "Probintzia" deituriko lurraldetan bildu izan dira, beren prestakuntza, bizitza eta gobernurako; baina barruti horiek ez dute, berez, Pro-



bintzia zibilekin zerikusirik, eta beren lurraldean Nagusi Probintzial bati zegozkion Etxeek osatu izan dute barruti bakoitza.

Gehienetan, Probintzia horiek ez dituzte Hego-Iparraldeak, biak, batasun berean besarkatu, eta Hegoaldea bera ere osorik eta bakarrik ez da izan Probintzia erlijioso bakarreko barrutia. Batzuetan euskal Hegoaldea-zatituta-barruti erlijioso ezberdinetakoa izan da, edota osorik barruti berean egon denean, barruti geografiko probintzian Etxe ez euskal herritarrek ere egon dira.

Iragan horretan ere ongi ageri da zein zaila izan zaion Euskal Herriari (Estatu baten faltan) bere nortasuna barruti jakin batean osorik eta bakarrik eratu eta bizi izatea.

Hala ere, Kaputxinoen Nafarroa-Kantabriako Probintzia (1679) izan daiteke Hegoaldea eta bera bakarrik besarkatu nahi zuen frantziskotarren Probintzia, nahiz eta asmo hura ez zen osorik burutu. Arantzazuko Probintzia zaharrak (Kantabria deituak) ez zuen biltzen bere baitan Nafarroa, eta inguruetako zenbait komentu ere bazuen bere barrutian.

Fraide eta moja-etxe frantziskotarrak (kaputxinoenak kontatu gabe ere) 55 izatera iritsi ziren 1737an, eta Familia frantziskotarra (kaputxinoak barne) 1.552 erlijioso izatera heldu zen Erregimen Zaharraren bukaeran (1791, 1797). Alde handiarekin, Euskal Herriko Erlijioso-Familia handiena gertatu zen denbora luzez.

XIX. mendeko azken hamarkadetatik hasita, lehendik irekita zeuden komentuak, edo izanberrituak eta oinarri berrietan eraikitakoak inoiz baino ugariagoak izan dira, Institutuak berak

bezala. Joan berria den XX. mendean emakumezkoen presentzia are nabariagoa izan da, klaustra hertsiko kontenplarien ondoan ekintzara emandako moja ekileak ugariak izan baitira, beren ikastetxe, erietxe eta zerbitzu ezberdinetako erakundeetan.

### ...eta munduan zehar

Atzera begira eta ia zortzi mendeko historia horretan, azpimarratzekoa da, azkenik, Institutu ezberdinetakoa euskal frantziskotarrek Erbestean egindako lana; kaputxinoek Kongon (1642) edo Venezuelan (1749), Arantzazuko fraideak Ameriketara eta Asian (Mexiko, Peru, Argentina; Lur Santuak, Txina), Mariaren Misiolari frantziskotarrak munduan nonahi XX. mende osoan. Tradizio misiolari horretakoak izan ziren Zumarraga (†1548), J. Mendieta (†1604), Martin I. Loiolakoa (†1606), Martin Igokundekoa (†1597) edo Frantzisko Iruñekoa (†1651).

Esklaustrazio aurretik bezala ondoko Probintzia izanberrituetan Misioren mundua zerbait bizia izan da eta gizon-emakume asko eraman ditu lurralde urrunetara eta herri eta kultura arrotzetan bizitzera. Misiolarien hau izan da, hain zuzen, Euskal Herriak gainerako herriei egin dien ekarpen handietako bat.

### Gehiago jakiteko

INTXAUSTI, J. (2004): "Frantziskotarren Euskal Herriko historia (c. 1220-2000)", in: *Euskal Herriko erlijiosoen historia*. Arantzazu: EFA. 349-376. *Galderak eta oharra*: 610273580.

**Joseba Intxausti**